



SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2019KO AZAROAREN 6KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE-EKIMENENKO HEZKUNTZA-SEKTOREAN 2019KO AZAROAREN 7TIK ABENDUAREN 5ERA (BIAK BARNE) DEITUTAKO GREBAN ERKIDEGOARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUAK BERMATZEN DITUENA.

ELA, STEE-EILAS, CCOO eta LAB sindikatuek greba deialdia egin dute hezkuntza arloan, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko irakaskuntza-sektorean; greba azaroaren 7tik abenduaren 5era bitarteko egunetarako deitu da, bi egun horiek barne, guztira biak barne 21 lanegun.

Deitzaileen arabera, honako hauek dira grebaren helburuak: “1. Langileriaren lan baldintzak defendatu eta hobetu eta lan hitzarmen berri bat lortzea. 2. Lan Hitzarmena 2009koa da, eta hitzarmena indarrean egoteko epealdia agortu zenetik mahai negoziatzaileko hainbat bilera egin ditugu (30etik gora), eta kontzentrazioak, eta eskaera ugari egin dizkiegu lau patronalei (Kristau Eskola, Aice-Izea, Elizbarrutiko Ikastetxeak eta Ikasgiltza), baina inolako fruiturik ez dute eman”. Grebara deitutako kolektiboak honako hauek dira: “Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko lan hitzarmena aplikatzen zaien langileak (10.000 langile inguru)”.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea baliatzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, nahitaezkoa da neurri egokiak ematea Erkidegoarentzako ezinbesteko zerbitzuak bete daitezen, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, “egokitasun-judizioa” deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun



berarekin lortzeko, hau da, "beharrizan-judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Konstituzio Auzitegiak zenbait alditan adierazi du haren iritzia gai horren inguruan, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan

Itunpeko irakaskuntzaren sektorean deitutako greba da, gizarte-ekimeneko sektoreari eragiten dio hain zuzen ere, eta denbora-eremuari dagokionez 21 egun osokoa da, zeintzuk 2019ko azaroan eta abenduan banatuko baitira. 2019/2020 ikasturte honetan deitutako lehen greba da. Hala ere, gogorarazi beharra dago aurreko ikasturtean, 2018/2019an, beste lau greba-deialdi egin zirela: lehenengoa 2018ko urriaren 9an eta 10ean egin zen, eta greba-egun osoak izan ziren; bigarren deialdia 2018ko azaroaren 27, 28, 29 eta 30ean egin zen, eta orduan ere greba-egun osoak izan ziren; hirugarren deialdia 2019ko urtarrilaren 16, 17, 18, 21, 22, 23, 24 eta 25ean egin zen, guztira zortzi egun oso. Laugarren deialdia 2019ko martxoan, apirilean eta maiatzean izan zen, honako modu honen bitartez: 4 egun jarraian martxoan – 12, 13, 14 eta 15ean-, lau egun jarraian apirilean -1, 2, 3 eta 4an- eta bi egun jarraian maiatzean -8 eta 9an-.

Eragindako pertsonen dagokienez, 107.000 ikasle inguru izango direla kalkulatu da, betiere Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurreko ikasturteko deialdietan emandako datuak oinarri hartuta, eta deialdiak honako irakaskuntza arloei eragingo die:

- a) Haur Hezkuntzako 1. zikloa (0-2 urte).
- b) Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-5 urte).
- c) Lehen Hezkuntza.
- d) Bigarren Hezkuntza.
- e) Batxilergoa eta Heziketa Zikloak.



Bestalde, jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, nahitaezkoa eta beharrezkoa da ikastetxeak irekita egotea ikasleentzat, greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea – Konstituzioaren 35. artikuluan onartua– gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere; hain zuzen ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.

Alabaina, unibertsitaterik kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatze edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez –irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezgaiak zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko – Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe haietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara zuzentzeko ardura beren gain hartu dezaten.

Egoera horren ondorioz, Lan-agintaritza honek ikasleen segurtasuna bermatzeko ezartzen ari ziren gutxieneko zerbitzuak birplanteatu zituen aurtengo urtarrilaren 16, 17, 18, 21, 22, 23, 24 eta 25erako deitutako greba deialdirako, batez ere haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetarako eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ikasleei zerbitzua ematen dieten ikastetxeetarako. Hori guztia 2019ko urtarrilaren 15eko Aginduan jaso zen, eta ildo horri eutsi zitzaion hurrengo deialdiaren harira emandako aginduan, hau da, martxoaren 12, 13, 14 eta 15erako, apirilaren 1, 2, 3 eta 4rako eta maiatzaren 8 eta 9rako gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen Aginduan.

Deialdi horien harira eman ziren bi aginduei (2019ko urtarrilaren 15eko Agindua eta 2019ko martxoaren 7ko Agindua, hurrenez hurren) errekurtsua jarri zitzaien Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Aipatutako errekurtsuak ebatzi egin dira, eta kasu bietan ezetsi egin dituzte, bai ekainaren 26ko 327/2019 Epaia (59/2019



administrazioarekiko auzi-errekurtsua arrunta eta 62/2019 epai metatua), bai irailaren 10eko 361/2019 Epaiak (177/2019 Jurisdikzioa Babesteko Administrazioarekiko auzi-errekurtsua); ondorioz, epaiok aipatutako aginduak berretsi dituzte

Adierazitakoa dela-eta, lehenik eta behin, kontuan hartzekoa da hezkuntza funtsezko eskubidea dela, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen duela, eskubide hori zentzu zabalean harturik; hau da, pertsonen bizitza osoan indarrean dagoela aintzat hartuta, eta, hortaz, existentziaren lehen urteak ere barne hartzen dituelarik, non hezkuntza-zerbitzua ematea beharrezkoa den haurraren garapen integrala ahalbidetzeko. Unibertsitate-hezkuntza ere barnean sartzen da, Konstituzio Auzitegiak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: "hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubidez baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu funtsezko zerbitzu horiek zehaztea Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubidez) kontrakoa dela."

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Grebaren iraupena" faktorearen izaera garrantzitsuaz ohartarazten du aipatutako 327/2019 eta 361/2019 epaietan, ez bakarrik aurreko bi deialdietan emandako aginduetan ezarritako gutxieneko zerbitzuen kuantifikazioari dagokionez, baizik eta grebarako eskubidea eta ikasleen hezkuntzarako eskubidea (ez soilik segurtasun fisikorako eskubidea) kontrajartzen diren kasuetan batez ere. Horrez gain, aipatzen da egindako frogaren arabera, egun horietan adingabeak "zainduak" izan zirela, baina ez zela irakasgaririk eman eta, ondorioz, irakaskuntzarako eskubidea kolokan egon zitekeen.

Bada, aurreko ikasturtean eman ziren aginduak zentroetara sartzeko kontrola bermatzean eta ikastetxeei atxikitako babes-funtzioa zaintzean oinarritzen ziren funtsean. Alabaina, oraingo deialdia lehen hiruhilekoaren amaieraren eta bigarrenaren hasieraren artean izango da, 21 egunez jarraian. Grebaren iraupenak, beraz, arriskuan jar dezake deialdiak eragindako ikasleen hezkuntza, ez soilik eskola-egunen portzentaje-galeragatik, baizik eta, galera hori etengabe gertatzen ari delako; beraz, ikasleak hezkuntza-jarduerarekin deskonektatzeak arrisku nabarmenean jar dezake konstituzionalki bermatutako hezkuntzarako eskubidea eta ondorioak izan ditzake ikas-errendimenduan.

Horiek horrela, ikastetxea irekitzeko izendatzen ziren pertsoez gain, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko eta funtsezko hezkuntza-jarduerekin jarraitu ahal izateko behar beste irakasle izendatzea 21 egun jarraian iraungo duen greba horretarako, Espainiako Konstituzioaren 35. artikuluan jasotako lanerako eskubidea berma dadin eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak ezartzen duen adingabearen interes gorenean oinarritutako ikasleen zaintza eta segurtasuna berma dadin. Ikastetxe bakoitzak zehaztu beharko ditu jarduera horiek eta berorien edukiak, betiere ikastetxe bakoitzaren autonomia pedagogikoaren arabera ezarritako hezkuntza-proiektuan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko



2/2006 Lege Organikoan oinarrituta.

Aurreko guztiagatik, Haur eta Lehen Hezkuntzan 100 ikasleko 2 irakasle ezartzen dira ikastetxe bakoitzeko, honakoaz gain: zuzendaritza-taldeko pertsona bat eta mendekoen plantillako pertsona bat goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.

DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako etapetan elkarren segidako eskola-egun kopuru handia galtzeak eragin handia izan dezake ikasleen hezkuntza-mailako etorkizunean; ondorioz, egokitzat jotzen da ratio handiagoa ezartzea, hau da, 100 ikasleko 3 irakasle.

Aipatu beharrekoak dira, bestalde, hezkuntza bereziko ikastetxeak, baita zentro batzuetan diren hezkuntza bereziko ikasgela egonkorak ere. Ikastetxe hauetara joaten diren ikasleek premia bereziak dituzte, desgaitasunak eta goimailako mendekotasuna. Beraz, holako ikastetxeetan babes askoz handiagoa izan behar du, ikasleek banakako arreta eskatzen dutelako, baita zaintza intentsiboa eta etengabea. Horiek direla eta, ikastetxe hauek berezko duten babes-funtzioa ondo beteko bada, beharrezkoa jo da ikasgela hauetan ohiko langilegoaren %75 egotea.

Horiek guztiak ikusita, agindu honetan zehazten dira gutxieneko zerbitzuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta alor horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik, bertan honako hau ezartzen da: «Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako funtsezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko». Azken batean, gobernu-agintaritzari ahalmena ematen zaio edozein motatako berme-neurriak hartzeko, betiere greba denean ezinbesteko zerbitzuei eusteko, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei zerbitzuok bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege



enpresa-elkarteei eta Hezkuntza Sailari—, Jaurlaritzaren erabakiak eragingo dien zerbitzu eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio behar diren neurriak ezartzeko eskumena, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen sektoreko langileek 2019ko azaroaren 7tik abenduaren 5era bitarteko egunetarako deitu da, bi egun horiek barne deialdia egin den grebarako eskubidea balia dezakete, betiere ondoren adierazten diren funtsezko prestazioak eta haien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak atxikita:

1.- Grebak eragindako zentro guztietan zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, ikastetxe eta horiei lotutako zentro publiko bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.

2.- Honako hauek gehituko zaizkie aurreko paragrafoan finkatutako zerbitzuei, fabes-funtzioa babestu dadin eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren gutxieneko eta funtsezko jarduerak egin daitezten:

a) Zentro arruntetan:

- Haur-hezkuntzan matrikulatutako 100 ikasletik beherako zentroetan 2 irakasle. Atal horretan matrikulatutako 100 ikasletik gorako zentroetan beste 2 irakasle gehituko dira. 200 ikasletik gorakoetan, beste bi irakasle. Modu hori erabiliko da 100 ikasleko multzo bakoitzeko.
- Lehen-hezkuntzan matrikulatutako 100 ikasletik beherako zentroetan 2 irakasle. Atal horretan matrikulatutako 100 ikasletik gorako zentroetan beste 2 irakasle gehituko dira. 200 ikasletik gorakoetan, beste bi irakasle. Modu hori erabiliko da 100 ikasleko multzo bakoitzeko.



- D.B.H.-n, Batxilergoan eta Lanbide-heziketan matrikulatutako 100 ikasletik beherako zentroetan 3 irakasle. Atal horietan matrikulatutako 100 ikasletik gorako zentroetan 3 irakasle gehituko dira. 200 ikasletik gorakoetan beste 3 irakasle. Modu hori erabiliko da 100 ikasleko multzo bakoitzeko.
- Hezkuntza bereziko ikasgela egonkorrak dituzten zentroetan ohiko langileen %75 ikasgela horietan.

b) Hezkuntza bereziko zentroetan ohiko langileen %75.

Bigarrenena.- 1. Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak, eta langile horiek txandaka bete behar dituzten eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Honako hurrenkeran izendatuko dira gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten pertsonak: lehenengo zerbitzu hau eman ohi duten eta grebarekin bat egingo ez duten langileei deituko zaie; modu horretan gutxieneko zerbitzuak betetzeko adina langilerik ez balego, greba egiteko asmoa duten langileen artean izendatuko dira gutxieneko zerbitzua eman beharrekoak.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.





Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 6an



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUA